

noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

Buruntzaldea

Astigarragan sagardoa nagusi

Atzo Euskal Herriko Sagardo Egunik zaharrena ospatu zen Santa Ana egun bero baten harira

Astigarraga, Aitziber Muga - Sábado, 27 de Julio de 2013 - Actualizado a las 06:27h



Astigartar eta bisitariak hogeiei ekoizleen sagardoa dastatzen. (A. M.)

gIRO aparta atzokoa Astigarragako festetan. Ohi bezala, Santa Ana egunean, uztailaren 26an, Sagardo Eguna ospatzen da herrian eta bertan, Astigarraga eta inguruko hogeiei bat sagardogilek beren sagardoa eskaini zuten. Atzo egindako beroarekin zintzurrek edari freskagarria eskertzen zuten. Gainera txorizo pintxoaren usaina antzematen zen.

Foru plazan astigartarrek eta baita bisitari askok egunaz disfrutatu zuten eta ordu gutxitan zenbait ekoizleen botilak amaitu ziren. Antolatzaileek jakitera eman zutenenez, 2.000 botila jarri ziren dastatzeko.

"Sagardo guztiak oso onak daude", animatu zuen idi demen esatariak. Izan ere, 1976. urteaz geroztik ospatzen den Astigarragako Sagardo Egun hau, Euskal Herria osoan ospatzen diren guztien artean zaharrena da.

Bestalde, Foru plazan ere bai, baina udaletxeko arkupean, artisau gozogileak jarri ziren. Jendeak ere ez zien muzin egin beste gozamen hauei eta tarta eta erroskila ugari sakdu zituzten.

Santa Ana eguna baserri munduko festa da. Gauzak horrela, eguneko lehenengo orduetatik Iturengo joaldunak ibili ziren zintzarriak mugituz, baita Estanga trikitilariak eta Xabier Zeberio eta Aitor Mendizule bertsolariak ere. Jende andana bildu zen Rafa Irarreta, Retegei eta Matxainen idi pareen lehiaketa ikusteko. Herriko elkarten bazkarien ondoren herri kirolak, euskal dantzak, ume jolasak, berbena, dantzaldiak eta abar izan ziren.

Santioak

Bi egun gehiago

Bihar emango zaie bukaera bost egunetako Santio jaiei. Alabaina, gaur, bereziki haur eta gaztetxoentzat, ekitaldi ugari egongo dira: saskibaloia, *paintball*, magia ikuskizuna, tailerrak eta puzgarriak...

Biharko egitarauan, ordea, berrikuntza ugari egongo dira. Esaterako, 17.00etan urritasun fisikoa duten kirolarien eskutik pala erakustaldia egongo da eta ondoren, Jose Luis Berakoetxearen oroimenezko IX. esku pilota jaialdia jokatuko da pilotalekuan.

Beste nobedade bat 18.00etan Joseba Barandiaran plazan hasiko den *Sienta la cabeza* erakustaldia izango da, non ile-apainketa artistikoak egiten diren musikaren erritmoarekin herriko parte-hartzaile ausartenentzat.

23.00etan familia guztiak gustuko izango duen *Piratas de Malpika* su kalejira ikusteko aukera izango da Kale Nagusia eta Galtzaur elkargune artean.

Amaitzeko, gauerdian Astigarragako II. Film Laburren Lehiaketako proiektzioa eta sari-banaketa egingo dute.

Hurrengo jaia

Santiagomendi

Igandean ez dira amaituko udara honetako herriko jai guztiak, abuztuaren 15 eta 16an Santiagomendi auzoak San Rokeak ospatuko baititu.

Dagoeneko egitaraua itxita dute. Honela, Santuaren bezperan oilasko biltzaileen kalejira, bertako baserrien arteko sagardo txapelketa eta pintxo dastaketa, zakdi dema, auzo bazkaria eta herri kirolak izango dira, besteak beste. Ekitaldi guzti hauek auzoan burutuko dira.

San Roke egunean, aldiz, ekimenak Done Jakue ermitaren ondoan egingo dira. Hasteko meza egongo da eta ondoren Astigar taldeko dantzariak saio bat eskainiko dute. Indarrak berritzeko Labeleko oilasko jatea egingo da. Txartelak abuztuaren 1etik aurrera Ikatza taberna salgai ipiniko dira. Amaitzeko, Alaiki musika taldearekin dantzaldia egongo da.

Bestalde, abuztuaren 23tik 26ra Ergobia auzoko jaiak ospatuko dira.

gaurko egitaraua

• **10.00.** Iker Ruiz Oroimenezko

XIII. 3x3 Saskibaloia Txapelketa, kiroldegian egun osoan zehar.

• **12.00.** *Paintball* gunea eta *Kinekt* pantailak Erribera plazan.

- **12.00.** Haurrentzako puzgarri eta tailerrak Foru plazan.
- **14.30.** Gazte bazkaria, Gazte Asanbladaren txoznan.
- **16.00.** *Paintball* gunea eta *Kinekt* pantailak Erribera plazan.
- **16.00.** Puzgarri eta tailerrak.
- **17.00.** Bingoa Galtzaur elkartean.
- **18.00.** Apar festa Foru plazan.
- **18.30.** Sugarri show fanfarrea.
- **19.00.** Eriz magoa Norberto Almandoz plazan.
- **23.00.** *Errimak oinetan*. Haatik dantza konpainiaren ikuskizuna pilotalekuan.
- **00.00.** Txarantukada, perkusio eta metalen kalejira.
- **00.00.** Sorpresa, Eutsi eta Joxe Replay taldeak txoznan.

Cargando comentarios...



Haz tu comentario

[Condiciones de uso](#)

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

ComentariosNúmero de caracteres (500/500)

[Soy usuario registrado](#)

Introduce tus datos.

[Quiero registrarme](#). Sólo tardarás un minuto. El comentario se enviará después de registrarte.

Usuario registrado

Correo electrónico

☐

Recordarme la próxima vez

[¿Olvidaste tu contraseña?](#)

Enviar

¡Hecho!



Recibirás un correo electrónico para confirmar tu registro.

Enseguida te devolveremos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

Publicidad

-
-
-

• © Diario de Noticias-Edición Digital

-
-
-